

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen martxoaren 8ko 2/2005 FORU ARAUA.

208. artikulua. Zerga arau-haustea, Zerga Administrazioaren lanari aurre egin, eragozpen edo aitzakiak jarri edo uko egiteagatik.¹⁴²

(...)

3. Baldin eta Zerga Administrazioaren lanari aurre egin, eragozpen edo aitzakiak jarri edo uko egitean errekerimenduei epe barruan erantzuten ez bazaie, diruzko isun finko hauek jarriko dira:

- a) 150 euro, errekerimendua lehendabiziko aldiz bete ez denean.
- b) 300 euro, errekerimendua bigarren aldiz bete ez denean.
- c) 600 euro, errekerimendua hirugarren aldiz bete ez denean.

4. Baldin eta Zerga Administrazioaren lanari aurre egin, eragozpen edo aitzakiak jarri edo uko egiten bazaio pertsona fisikoen edo entitateen jarduera ekonomikoei dagokienez, isun hauek jarriko dira:

- a) 300 euroko diruzko isun finkoa, baldin eta prozeduran agertzen ez bada edo jarduketa administratiboa errazten ez bada edo exijitutako informazioa ematen ez bada horretarako egindako lehendabiziko errekerimenduan emandako epean.
- b) 1.500 euroko diruzko isun finkoa, baldin eta prozeduran agertzen ez bada, jarduketa administratiboa errazten ez bada edo exijitutako informazioa ematen ez bada horretarako egindako bigarren errekerimenduan emandako epean.
- c) Arau-hausleak arau-haustea egin aurreko urte naturalean izandako negozio zifraren 100eko 2rainoko diruzko isun proportzionala, gutxienez 10.000 eurokoa eta gehienez 400.000 eurokoa, baldin eta prozedurara agertu ez bada edo prozeduran agertzen ez bada, jarduketa administratiboa errazten ez bada edo exijitutako informazioa eman ez bada horretarako jakinarazitako hirugarren errekerimenduan emandako epean.

(...)

¹⁴²

Artikulu hau maiatzaren 9ko 1/2017 FORU ARAUAren artikulua bakarren berrogeita hemeretzi apartatuak aldatu du. Aipatutako Foru Arauak Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorra zati batean aldatzen du. Aldaketa foru araua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den hurrengo egunean sartzen da indarrean (2017/05/12ko GAO).